Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
tzaren 2022ko pirilaren 28ko 481 zenbakiko Erabakiaren bidez onartua.
Diligencia: Aprobado por Resolución de Alcaldía nº 451de fecha 28 de abril de 2022.

2022ZAUN0029

Irun, 29 de abril de 2022
Behin behineko Idazkaria/La Secretaria Accidental

ERAKUNDE UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

DIN A-4 ETA DIN A-3 PAPERA HORNITZEA UDAL-BULEGOETARAKO / SUMINISTRO DE PAPEL DIN A-4 Y DIN A-3 PARA LAS OFICINAS MUNICIPALES

– *BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	EROSKETA ETA EKIPAMENDUAK / COMPRAS Y EQUIPAMIENTOS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2022ZAUN0029

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da DIN A-4 eta DIN A-3 paper-hornidura kontratatzea udalaren bulego eta zerbitzuetarako, kontuan hartuta paper horiek erabilera anitzeko inprimatze-makinen bidez erabiliko direla nagusiki.

2. ESKAINI BEHARREKO PRODUKTUEN IRISMENA

Kontratuaren arabera, DIN A-4 eta DIN A-3 tamainako paper birziklatua, nagusiki, eta paper zuria eraman eta garraiatu behar da udal-bulegoetara. Kontsumo-hornidura da, eta hilean egindako hornidurari dagokion zenbatekoa ordainduko da, eskainitako unitateko prezioen arabera eta hilean zehar eskatzen den kopuruaren arabera.

3. EZAUGARRI TEKNIKOAK

Papera, batik bat, inprimatzeko eta fotokopiatzeko erabiliko da. Horretarako, paperak ongi ibili beharko du Irungo Udalaren inprimatze-makinetan, bai zuri-beltzean bai koloretan eta alde batetik eta bestetik, eta dokumentuak kontserbatzeko iraunkortasun egokia eskaini beharko du. Ondoren, eskatutako paperen zerrenda agertzen da:

Zk.	DESKRIBAPENA
1	A4 papera - % 70 Birziklatua
2	A3 papera - % 70 Birziklatua
3	A4 papera - Arrunta eta zuria
4	A3 papera - Arrunta eta zuria
5	A4 papera - % 80 Birziklatua
6	A4 papera - % 90 Birziklatua
7	A3 papera - % 80 Birziklatua
8	A3 papera - % 90 Birziklatua

Eskainitako paperak honako ezaugarri tekniko hauek bete behar ditu gutxienez:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

2022ZAUN0029

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

DIN A4 eta DIN A3 paper birziklatua - % 90	
Ezaugarri horiei guztiei buruzko agiriak eta ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, eta haien kokalekua zehaztu beharko da.	
Ezaugarriak	Kontsumitu ondoko berreskuratutako zuntzezko paper %100 birziklatua.
	Erabat oinarrizko klororik gabea fabrikazioan (TCF).
	Produktu kimikoak erabiltzeko eta mugatzeko ingurumen-betekizunak bete beharko ditu. Baloratu egingo dira Europako Ekolabela, Aingeru Urdina, Beltxarga Zuria eta abar ziurtagiri.
% zuritasuna (ISO 2470)	85
% Opakotasuna (ISO 2471)	90
Gramajea (ISO 536)	80 +/- 4gr/m²
% hezetasuna (ISO 287)	3,50 - 5,00
Iraunkortasuna	100 urtetik gorako iraunkortasuna izan behar du, ISO 5630-1:1991 arauaren eta Alemaniako DIN 6738:1999 [LDK 24-85] arauaren edo baliokidearen arabera.
Inprimatzea/fotokopiatzea	UNE 12281:2003 arauaren edo baliokidearen arabera inprimatzeko eta fotokopiatzeko egokitasun-betekizunak bete beharko ditu.
Bizarrak	Bizarrik gabea
Aurkezpen-formatua (DIN-A4):	5 paketeko kartoizko bilgarria. Ezaugarrien etiketa eduki du kaxa bakoitzak.
	500 orriko paketeak, hondakin-orri iragazgaitzeko bilgarrian aurkeztuta, barruan forratua, hezetasunetik babesteko
Ingurumen-zigilua:	Baloratu egingo da ingurumen-zigiluaren ziurtagiria (ziurtagiri ekologikodun papera, FSC, PEFC edo horien baliokidea den baso-ustiategietatik datorrena).

DIN A4 eta DIN A3 paper birziklatua - % 80	
Ezaugarri horiei guztiei buruzko agiriak eta ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, eta haien kokalekua zehaztu beharko da.	
Ezaugarriak	Kontsumitu ondoko berreskuratutako zuntzezko paper %100 birziklatua.
	Erabat oinarrizko klororik gabea fabrikazioan (TCF).
	Produktu kimikoak erabiltzeko eta mugatzeko ingurumen-betekizunak bete beharko ditu. Baloratu egingo dira Europako Ekolabela, Aingeru Urdina, Beltxarga Zuria eta abar ziurtagiri.
% zuritasuna (ISO 2470)	75
% Opakotasuna (ISO 2471)	90
Gramajea (ISO 536)	80 +/- 4gr/m²
% hezetasuna (ISO 287)	3,50 - 5,00
Iraunkortasuna	100 urtetik gorako iraunkortasuna izan behar du, ISO 5630-1:1991 arauaren eta Alemaniako DIN 6738:1999 [LDK 24-85] arauaren edo baliokidearen arabera.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Inprimatzea/fotokopiatzea	UNE 12281:2003 arauaren edo baliokidearen arabera inprimatzeko eta fotokopiatzeko egokitasun-betekizunak bete beharko ditu.
Bizarrak	Bizarrik gabea
Aurkezpen-formatua (DIN-A4):	5 paketeko kartoia. Ezaugarrien etiketa eduki du kaxa bakoitzak.
	500 orriko paketeak, hondakin-orri iragazgaitzezko bilgarrian aurkeztuta, barruan forratua, hezetasunetik babesteko
Ingurumen-zigilua:	Baloratu egingo da ingurumen-zigiluaren ziurtagiria (ziurtagiri ekologikodun papera, FSC, PEFC edo horien baliokidea den baso-ustiategietatik datorrena).

DIN A4 eta DIN A3 paper birziklatua - **% 70**	
Ezaugarri horiei guztiei buruzko agiriak eta ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, eta haien kokalekua zehaztu beharko da.	
Ezaugarriak	Kontsumitu ondoko berreskuratutako zuntzezko paper %100 birziklatua.
	Erabat oinarrizko klororik gabea fabrikazioan (TCF).
	Produktu kimikoak erabiltzeko eta mugatzeko ingurumen-betekizunak bete beharko ditu. Baloratu egingo dira Europako Ekolabela, Aingeru Urdina, Beltxarga Zuria eta abar ziurtagiri.
% zuritasuna (ISO 2470)	65
% Opakotasuna (ISO 2471)	90
Gramajea (ISO 536)	80 +/- 4gr/m²
% hezetasuna (ISO 287)	3,50 - 5,00
Iraunkortasuna	100 urtetik gorako iraunkortasuna izan behar du, ISO 5630-1:1991 arauaren eta Alemaniako DIN 6738:1999 [LDK 24-85] arauaren edo baliokidearen arabera.
Inprimatzea/fotokopiatzea	UNE 12281:2003 arauaren edo baliokidearen arabera inprimatzeko eta fotokopiatzeko egokitasun-betekizunak bete beharko ditu.
Bizarrak	Bizarrik gabea
Aurkezpen-formatua (DIN-A4):	5 paketeko kartoia. Ezaugarrien etiketa edukiko du kaxa bakoitzak.
	500 orriko paketeak, hondakin-orri iragazgaitzezko bilgarrian aurkeztuta, barruan forratua, hezetasunetik babesteko
Ingurumen-zigilua:	Baloratu egingo da ingurumen-zigiluaren ziurtagiria (ziurtagiri ekologikodun papera, FSC, PEFC edo horien baliokidea den baso-ustiategietatik datorrena).

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

2022ZAUN0029

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRÚN

DIN A4 eta DIN A3 papera - **ZURIA**	
Ezaugarri horiei guztiei buruzko agiriak eta ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, eta haien kokalekua zehaztu beharko da.	
% zuritasuna (ISO 2470)	90
% Opakotasuna (ISO 2471)	90
Gramajea (ISO 536)	80 +/- 4gr/m²
% hezetasuna (ISO 287)	3,50 - 5,00
Iraunkortasuna	100 urtetik gorako iraunkortasuna izan behar du, ISO 5630-1:1991 arauaren eta Alemaniako DIN 6738:1999 [LDK 24-85] arauaren edo baliokidearen arabera.
Inprimatzea/fotokopiatzea	UNE 12281:2003 arauaren edo baliokidearen arabera inprimatzeko eta fotokopiatzeko egokitasun-betekizunak bete beharko ditu.
Bizarrak	Bizarrik gabea
Aurkezpen-formatua (DIN-A4):	5 paketeko kartoia. Ezaugarrien etiketa edukiko du kaxa bakoitzak.
	500 orriko paketeak, hondakin-orri iragazgaitzezko bilgarrian aurkeztuta, barruan forratua, hezetasunetik babesteko

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO IRUN

4. HORNIDURAREN BALDINTZAK

a. HORNITZEKO LEKUAK

Udalaren bulego guztietan hornitu behar da papera. Zerrenda bat gehitu da, "I. eranskina - Entregatzeko helbideak", zerbitzuen izenekin eta entregatzeko helbideekin. Entregak funtzio anitzeko inprimagailua dagoen tokian bartan egin behar dira.

Zerrenda horretan, gaur egungo hornikuntza-helbideak jaso dira, baina ez dago osatu, beste entrega-helbide batzuk ere (Irunen) sar baitaitezke Irungo Udalaren beharren arabera.

Udaleko zerbitzuek Erosketa eta Ekipamendu Zerbitzuaren bidez hilabetean zehar egindako eskaeren arabera egingo dira hornidurak.

b. ZENBAT PAPER HORNITU BEHAR DEN GUTXI GORABEHERA

Hona hemen Irungo Udalak azken urteotan izan duen paper-kontsumoari buruzko datu batzuk, informazio gisa eta gutxi gorabehera:

b.1 AZKEN URTEOTAN KONTSUMITUTAKO PAPERA KILOTAN

EROSITAKO PAPERA GUZTIRA	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Kg	11371	8732	8271	9884	8129	6512	6909

b.2 2017KO KONTSUMOA

PRODUKTUA	500 ORRIKO PAKETE-KOPURUA
Fotokopiagailurako papera, A4 ZURIA	27
Fotokopiagailurako A4 papera, % 100 birziklatua (500eko paket.)	3290
Fotokopiagailurako A3 papera, % 100 birziklatua (500eko paket.)	36
GUZTIRA	**3353**

b.3 2020KO KONTSUMOA

PRODUKTUA	500 ORRIKO PAKETE-KOPURUA
Fotokopiagailurako A4 ZURIA papera	15
Fotokopiagailurako paper-paketea, A3 ZURIA	4
Fotokopiagailurako A4 papera, % 100 birziklatua (500eko paket.)	2505
Fotokopiagailurako A3 papera, % 100 birziklatua (500eko paket.)	39
GUZTIRA	**2563**

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

a. HORNITZEKO EPEAK

Entregak gehienez ere 5 eguneko epean egin beharko dira, eskaera egiten denetik hasita, eta baloratu egingo da eskainitako entrega-epea murriztea.

Oro har, materiala lanegunetan entregatuko da, astelehenetik ostiralera, bulego-orduetan: 9:00etatik 14:00etara. Hala ere, noizbehinka aldatu ahal izango da (aurretik abisatuta edo jakinarazita), norako den kontuan hartuta eta hornitzailearekin adostuta.

b. HORNIDURAREN EZAUGARRIAK

Eskainitako gehienezko epean egin beharko da hornidura, Erosketa eta Ekipamendu Zerbitzuak bide elektronikoz bidalitako erosketa-eskaera jasotzen denetik aurrera. Eskaera horretan, 500 orriko zenbat pakete behar diren eta norako den adieraziko dira.

Enpresa esleipendunak harremanetarako pertsona bat izendatu beharko du, eta haren telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa eman beharko ditu. Datu hori eskaerak egiteko eta komunikatzeko erabiliko da.

Eskaerak esandako lekuetan behar bezala entregatu arte, enpresa esleipenduna izango da eskaeren erantzule bakarra. Nolanahi ere, esleipendunak bere gain hartuko ditu udal zerbitzu eskatzailearen instalazioetara eramateko edo garraiatzeko gastuak, bai eta material akastuna kentzeko gastuak edo/eta hornidura-akatsak gertatzen direnean ere.

Papera 500 orriko paketetan aurkeztu beharko da, 5 paketeko kaxetan paketatuta (2.500 orri). Baloratu egingo da enbalajea gutxienez % 80 paper/kartoi birziklatuzkoa izatea.

5. HORNIDURAREN INGURUMEN-BALDINTZAK

Honako baldintza hauek bete beharko dituzte aurkezten diren produktuek:

- Ez da kloro-gasa erabiliko, zuritzeko.
- Ez dira alkilfenoletoxilatoak (APEO) gehituko, ez eta alkilfenolaren beste deribatu batzuk ere, ez garbiketako produktu kimikoetan, ez erabilitako paperetik tintak kentzeko produktu kimikoetan, ez apar-kontrakoetan, ez dispertsatzaileetan, ez bilgarrietan.
- Ekoizpen-prozesuan ez dira erabiliko metal astunak dituzten substantzia edo prestakinak, batez ere kromoa, kadmioa, merkurioa, beruna, nikela, kobrea eta zinka.
- Agente tentsoaktibo biodegradagarriak baino ez dira erabiliko, zuntz birziklatuetatik tintak kentzeko.
- Adierazi egin behar da erabil litezkeen zuntz birjinen jatorria. Egur birjineko zuntz horien % 10ek, gutxienez, basoetako kudeaketa jasangarria bermatzeko printzipioak eta neurriak betetzen direla egiaztatzen duen ziurtagiria duten basoetatik etorri behar dute.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Baloratuko egingo da produktuak etiketa ekologiko ofizialak edukitzea (Europako Batasuneko Etiketa Ekologikoa, Aingeru Urdina, Beltxarga Zuria...). Hala badagokio, emate-ziurtagiria aurkeztu beharko da eskaintzan emandako dokumentazio teknikoan. Adierazpen horiek akreditazio-entitate ofizialek sinatuta egon beharko dute.

6. ENBALAJEA

Enbalajea kartoi birziklatuzkoa izango da, eta hezetasunaren kontrako hondakin-orrietan paketatuko da, eta paperaren ezaugarriak kanpotik adieraziko dira. Enbalaje horrek bermatu egin behar du produktua egoera ezin hobean egongo dela garraiatzean eta biltegiratzean.

Irunen, 2022ko martxoaren 2an

Erosketa eta Ekipamendu burua

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

2022ZAUN0029

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRÚN

I. ERANSKINA: ENTREGA-HELBIDEEN ZERRENDA OSATU GABEA

DESKRIBAPENA	IRUNGO KOKAPENAK
MARRAZKETA ETA PINTUR AKADEMIA	Fabiola erregina 28 (Anaka auzoa)
KULTURA ARLORAKO LEKU EGOKITUAK	Primautzar,13-15 (Irungo Industrialdea)
KULTURA ETA KIROLAK ARLOKO ADMINISTRAZIOA	Urdanibia plaza 6
MUGIKORTASUNA, BIDE PUBLIKOA ETA OBRAK ARLOKO ADMINISTRAZIOA	Iparrade hiribidea 39. Kostorbe eraikina, 1. solairua
MARTINDOZENEA ATERPETXEA	Elizatxo hiribidea 18
ALKATETZA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
LEKAENEKO BABESPEKO APARTAMENTUAK	Lucas de Berroa 10
ARTXIBOA	Karrika Nagusia (Pikoketa kaleko 1etik sartuta)
LIBURUTEGIA - CBA	San Juan, z.g. 20304 IRUN
GIZARTE ONGIZATEA	Urdanibia plaza 6
AMAIA KULTUR ZENTROA	Lopez de Becerra kalea z.g.
IRASO ZENTRO SOZIALA	Ama Birjina Mirarietakoa kalea (ospital zaharreko atzealdea)
LUIS MARIANO ZENTRO SOZIALA	Luis Mariano kalea 1 (Zahar etxea)
ENPRESA BATZORDEA	Foruen karrika 2-4
EROSKETAK	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
UDAL KONTSERBATORIOA	Policarpo Baltzola 17 (Mendibil parkea)
KONTRATAZIOA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
BIDE HEZKUNTZA	Juan Thalamas Labandibar kalea 21 (Udaltzaingoa)
GAZTERIA ETA HEZKUNTZA	Foruen karrika 2, 4.a
SAN MARTZIAL-TXINGUDI KIROLGUNEA	Behobia 20, 20305 IRUN (arratsaldeko ordutegia)
PALMERA MONTERO GUNEA	Leandro Agirretxe 1
ANAKA-PUIANAKO ADINEKOENTZAKO GUNE SOZIALA	Pedro Aristegui Enbaxadorea kalea 6-7 (arratsaldeko ordutegia)
BEHOBIAKO ADINEKOENTZAKO GUNE SOZIALA	M. Juncal Labandibar 34 (arratsaldeko ordutegia)
BELASKOENEKO ADINEKOENTZAKO GUNE SOZIALA	Olagizon kalea 32 (arratsaldeko ordutegia)
PALMERA-MONTEROKO ADINEKOENTZAKO GUNE SOZIALA	Leandro Agirretxe 1 (arratsaldeko ordutegia)
SAN MIGELEKO ADINEKOENTZAKO GUNE SOZIALA	Javier Esteban Indart 5-behea ((arratsaldeko ordutegia)
ESTATISTIKA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
EUSKALTEGIA	Urdanibia plaza 5
EUSKARA	Foruen karrika 2, 4.a
ALKATETZAKO KABINETEA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
MARTINDOZENEA GAZTELEKUA	Elizatxo hiribidea 18 20303 IRUN
GAZTE INFORMAZIOA	San Juan plaza z.g. (CBA liburutegia)
INFORMATIKA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
UGALDE-VENTASEKO KIROL INSTALAZIOAK	Katea
ARTIAKO KIROL INSTALAZIOAK	J. M. Franco kalea z.g.
PLAIAUNDIKO KIROL INSTALAZIOAK	Plaiaundi, Errugbi-zelaia
KONTU-HARTZAILETZA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
ESKU-HARTZE KOMUNITARIOA	Urdanibia plaza z.g.
IRUN FACTORY	Jose Antonio Loidi Bizkarrondo 8 - behea
LAN MEDIKUNTZA	Urdanibia plaza 6
INGURUNE IREKIA	Deskarga kalea 17 - Lapitze auzoa (arratsaldeko ordutegia)
AURREKONTU BULEGOA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
ANTOLAMENDUA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)

Ayuntamiento Udala

irun
www.irun.org

2022ZAUN0029

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRÚN

PARKEAK ETA LORATEGIAK	Udal-mintegiak. Ibarla Meaka errepidea 82
ALDERDI POLITIKOAK	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
ONDAREA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
LANGILEGOA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
HIRIGINTZA-PLANGINTZA	Iparralde hiribidea 39. Kostorbe eraikina, 2. solairua
UDALTZAINGOA	Juan Thalamas Labandibar kalea 21
HAUTESKUNDE-PROZESUAK	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
EKONOMIA-SUSTAPENA	San Martzial karrika 1 20304
BABES ZIBILA	Juan Thalamas Labandibar kalea 21
DIRU-BILKETA	Prudencia Arbide 2 - behea
ERREGISTRO OROKORRA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
ERRENTAK ETA ORDAINARAZPENAK	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
HAZ	San Martzial karrika 2-Behea 20304
IDAZKARITZA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
SOLAS-JOLAS	Foruen karrika 2, 4.a
DIRUZAINTZA	San Juan plaza 1 (Irungo Udaletxea)
HIRIGINTZA	Iparralde hiribidea 39. Kostorbe eraikina, 2. solairua
BIDE PUBLIKOAK	Praimautzar kalea 13-15. Irungo Industrialdea 20305